

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Esnearen digestioa, europarren espezialitatea

GIZAKI HELDU gehienek ezin dute esnea digeritu. European, aldiz, bada-gori hori egiteko gai den populazio handia.

Ezagun da pertsona gehienek, helduarora ailegatzean, esneen azukreetatik laktosa sortzeko ahalmena galdu egiten dutela, baina orain 7.000 urte, mutazio bati esker, populazio konkretu batzuetan laktosa sortzeko ahalmenari eustea lortu zuten batzuek. Horrela, Europa iparraldeko pertsonen %85 gai da laktosa digeritzeko. Portzentaje hori txikituz doa Eskandinaviatik hasita hegoalderantz baldin bagoaz.

Datu horretan oinarrituz, Ipar Europa hartzen zen gaitasun honen jatorritzat, baina University College London-eko ikerlari talde batek jatorria Balkanetan eta Europako erdian kokatu berri du. Antza denez, hainbat faktore elkartzen dira laktosaren digestioari laguntzeko, hala nola, D bitaminaren ekoizpen naturala, ugaztunen edoskitzea... baina oraindik ezin da ezer ere esan segurtasun osoz.



Polobakarreko sistema magnetikoaren bila

NATURAN EZAGUTZEN DITUGUN magnetismo-sistema guztiek bi polo dituzte, iparra eta hegoa, Lurra kasu. 1930. urtean Paul Dirac zientzialari britainiarrak karga magnetiko isolatuak edo polobakarrekoak existitu behar zutela iragarri zuen. Izpi magnetikoak polo batetik irten eta bestera biltzen dira, beraz, polobakarreko sistema da izpiak bildu edo izpiak emititu besterik egiten ez duena da.

Egindako probak ia zero absolutuko tenperaturan (-273,15°C) eta grabitaterik ezean egin dira, hau da, oso muturreko baldintzetan, baina lortutako emaitzekin naturan gertatzen diren hainbat gertaera orain arte ulertezin, ulertze bidean gera daitezke. Bi talde independente aritu dira ikerketan, bakoitza bere aldetik, baina lortutako emaitzak oso antzekoak izan direnez, bide egokian ari direlakoan daude.

Argia elektrizitate bihurtzen duten plastikoak

Zientzialari asko dabil munduan eguzki-mintz organikoak sortu nahian, hau da, eguzki-energia elektrizitate bihurtuko dutenak. Horrek iraultza izugarria ekarriko luke eguzki-energiaren alorrean. Helburua, oraingoan, argiaren %10 elektrizitate bihurtzea da. Ez da erraza, ordea.

<http://ttiki.com/6024> (Gaztelaniaz)

Zuhaitzetara igo zen lehen ornoduna, agian?

Dakigunez behintzat, *Suminia getmanovi* belarjale espezie paleozoikoa izan zen, orain 260 milioi urte, zuhaitzetara igozeko ahalmena eduki zuen lehen animalia ornoduna. Horrek elikatzeko eta segurtasunerako bide berriak eskaini zizkion.

<http://ttiki.com/6025> (Gaztelaniaz)

IBMk itzulpen automatiko parte-hartzailea nahi du

Itzulpen automatikorako sistema gehienek porrot egiten dute une batetik aurrera. IBMren sistema berri batek aukera emango du erabiltzailearen ekarpenei esker hori hobetzeko.

<http://ttiki.com/6026> (Frantsesez)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16